

BERRIGARA

81. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1992, urriak 23

**UDAZKEN
KULTURALA**
LARUNBATEAN
HASI ETA
GABONETAKO
KONTZERTURA
ARTE

**VICTORIO
BEAIN**
FRANTZISKOTAR
BERGARARRAK,
URREZKO
EZTIAK
ABADETZAN

KIROLAK

GORLAKO
KOTXE IGOERA
EZ DA
JOKATUKO
AURTEN



**BIZI
ALTERNATIBOA,
ASTELEHENETIK
IGANDERA
BITARTEAN**

POL-POL ARGAZKI TALDEA

Guipuzcoanon euskara aurretik

BANCO



Guipuzcoano

VI. BIZI ALTERNATIBOA

URRIAREN
26tik
AZAROAREN
1a arte

PROGRAMA:

- ASTELEHENA 26** "DENBORA LIBREA PREBENTZIO INGURUNE BEZALA" mahaingurua.
Arratsaldeko 7etan Kultur Etxean.
- ASTEARTEA 27** "GAZTEEN ELKARTEAK: GAUR EGUNGO EGOERA, EORKIZUNA..." aztergai.
Arratsaldeko 7etan Kultur Etxean.
- ASTEAZKENA 28** Jakue Pascual soziologo eta El-Tubo musika aldizkariko erredaktoreak
"GAZTEEK TOKI BEREZIRIK BEHAR DUTE?" izeneko hitzaldia emango du.
Arratsaldeko 7etan Kultur Etxean.
- OSTEGUNA 29** "HAZ LO QUE DEBAS" filma Novedades Aretoan.
Arratsaldeko 7etan. Sarrera doan.
- OSTIRALA 30** **BADMINTON ERAKUSTALDIA.**
Arratsaldeko 6etatik aurrera San Martin Plazan.
Ondoren, **KUKUMA** eta astean zehar hankapalu ikastaroan parte hartu
dutenekin kalejira egingo da
eta arratsaldeko 8etan **OIHULARI** taldearekin antzerkia Gaztetxean.
- Goizean: **ZIKLISMO JOLASAK.** Seminarioan.
 - Arratsaldeko 4etatik aurrera:
- LARUNBATA 31** **XAKE PARTIDAK** bost minututara, **GIMNASIA ERRITMIKAKO** erakustaldia,
JARDUN eta **EHE** taldeen **MURAL MARGOTZEA.**
- Gaueko 10.30etan: **SPOK, REQUIEM** eta **DAXKA** taldeekin musika jaialdia
Gaztetxean.
 - Goizean: **BIZIKLETA MARTXA:** San Martin Plaza-Angiozar-San Martin Plaza-
Osintxu-San Martin Plaza (irteera 10.30etan), **MOISES AZPIAZU DANTZA**
TALDEA eta **MUSIKA ESKOLAKO TRIKITILARIEK** alaitutako **kalejira**, **MUSIKA**
ESKOLAKO GAZTEEN BANDAREN emanaldia, **EGUZKI** taldeak antolatutako
liburuen azoka, pintoreak, zeramika erakusketa, **TAUN-TAUN**
txontxongiloak, irriati-zaleak eta salda eta txorizoa San Martin Plazan.
 - Arratsaldean: **ASKE** taldearekin eskulanak San Martin Plazan, **kalejira** eta
azkenik, **LA DUDA** taldearen kontzertua Gaztetxean arratsaldeko 8etan.

**DROGOPENPEKOTASUNEN PREBENTZIORAKO UDAL ZERBITZUAK
ANTOLATUTA, KIROL ETA KULTUR ZERBITZUEN LAGUNTZAREKIN.**

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnos eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jaurlaritza

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Miren Josu Arrazola

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Eduarne
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua: Iñaki

Eraña, Gorka Elorza eta Alex
Labaian

Kolaboratzaileak: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
Angel Elkoroberezar, J. M.
Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai,
Maripi Laskurain, N. Alzelai,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi, M.
Elkoroberezar, Aitziber
Aretxaga, Ainhoa Bikuña eta I.
Sorondo.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A.
Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.
Garzia, D. Santos, P. Retolaza,
Kifun eta Pol-Pol Mendizale
Taldea.

Komikia eta marrazkiak: Josu

Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa : Txantxangorri Taldea

Copyright:


BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

PROTAGONISTAK

AGARREKO GARAIXEA

Bergarako garaixea ostegunean, urriak 22, hasi eta igandera arte, hilak 25, Donostiako Miramar Jauregian burutuko den Herri Arkitekturaren II. Kongresuko protagonistetako bat izango dugu.

Aranzadi Zientzia Elkarteak antolatuta, 79 ponentzia egongo dira kongresu honetan eta hizlariak, besteak beste, Julio Caro Baroja, Michel Duvert, Alberto Santana edota Fermin Leizaola izango ditugu.

Garaixek Euskal Herriko paisaiatik ia guztiz desagertu direla esan genezake eta igandean zenbait hizlarik



eskursio bat egingo dute, beste eraikuntza batzuren artean, Barinaga eta Bergarako garaixek ikusteko aprobetxatuz.

Azkenik, esan deza-gun Alejandro Azkarate bergararrak egindako maketa kongresuan ikusgai izango dela.

Herri arkitekturari buruzko kongresuan aztergai

ITURRI ONETIK

Garbile lanean hasiko da

Pasa den irailaren 21eko Plenoan kale garbitasun zerbitzua Garbile enpresari 48 milioi pta.tan adjudikatu ondoren, enpresa honek azaroaren leian hasiko da lanean gure herrian. Garbilek orainarte Udaleko plantilan ziren 7 langileak kontratatuko ditu printzipioz eta udal arduradunen esanetan "garbiketa asko hobetuko da, jaiegunetan eta auzo ezberdinetan egingo baitu lan". Gogoratu dezagun, Garbilek eta Udalak adjudikazioa 6 urtetarako sinatu zutela.

ESAN DUTE

"Arrakasta handia izan dugu Venezuelan. Han panpinak erabiltzerakoan teknika bakar bat erabiltzen dute eta guk erabiltzen dituguak ikusterakoan harrituta geratu dira".

PILI GARZIA
TAUN-TAUN
txontxongilo taldekoa
EUSKADI IRRATIA

"Hego Euskal Herrian Monzonen karisma lukeen pertsona falta da. Gizon karismatikoa zen, irekia, fededun handia baina fedegabeekin oso irekia. Neurri ororen gainetik zegoen, nerretzat. Profeta zen".

LUDO DOCK
Apaiz flamendarra
ARGIA

"Galarza eta Zezeaga atzelarien arteko norgehiagoka epikoa izan da".

IÑIGO IDARRETA
Frontoiko
enpresarioa
EL DIARIO VASCO

ZUBIAURRE AROZTEGIA

- Sarrerako eta barruko ateak •
 - Horma armairuak • Tarimak •
 - Egurrezko eta PVCzko leihoak •
 - Era guztietako arotz lanak •
- Zubiaurre, 2. 76 15 14 / 76 35 74

ELEKTRO

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak,
automatismoak, e.a.

San Lorentzo 19,
Tfnos: 76 03 17 - 76 03 43



J. ALBERTO
GOROSABEL
MENDIZABAL

MEDIKO - DENTISTA

HAGIN KLINIKA
Fraiskozuri Enparantza,
5 behea. 76 56 88. BERGARA



UN HORIZONTE MUY LEJANO

Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00., 19.30. eta 22.30.
Igandea: 16.45., 19.30. eta 22.15.
Astelehena: 19.30.



STAR TREK VI
Igandea: 11.30.



HAZ LO QUE DEBAS
Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ Ron Howardek zuzendariak Estatu Batuetara emigratzen duten bi irlandar gazteen (Nicole Kidman eta Tom Cruise) gora-beheren istorioa dakarkigu. Beren ametsak betetzea ez da uste zuten bezain erreza izango eta gogor egin beharko dute lan.

▼▼ Telebista serie ospetsu batetan oinarriturik, *Enterprise* espaziuntzia eta Spock komandanteak zinean ere izugarrizko arrakasta lortu dute, batez ere Estatu Batuetan. Seigarren atal honetan, planeta ezezagun batera joango zaizkigu espazioko abenturazale hauek.

▼▼ Spike Lee zuzendaria beltzen problematika azaltzen duen filme honekin eman zen ezagutzera. New Yorkeko auzo marjinal batetan kokatuta, komunitate ezberdinen arteko tira-birak kontatzen zaizkigu. Istorio istilutsu honetan musikak garrantzi berezia du.

Erakusketak

▼ "Mexico Indigena" izenburuko argazki bilduma erakutsen du Daniel Mendoza mexikarraz Pol-Poleko aretoan, hilaren 30a bitartean.

▼ Bergarako Filatelia Taldearen antolatutako **Diru eta sellu** erakusketak zabalik dirau Kultur Etxean igandera arte.

Farmaziak

- ▼ **Larunbata 24:** Guallar / Azkoaga (Arrasaten, gauez).
- ▼ **Igandea 25:** Guallar / Español.
- ▼ **Astelehena 26:** Estella / Camacho.
- ▼ **Asteartea 27:** Mozos / Irizar.
- ▼ **Asteazkena 28:** Camacho / Amezua.
- ▼ **Osteguna 29:** Puy / Ruiz.
- ▼ **Ostirala 30:** Guallar / Azkoaga.

Ogia

▼ **Igandea 25:** Mizpildi.

Amets



Zerbitzuak haundiagotuz
HERGO karabanen
banatzailea

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50
AMETS Tailerrak
Berezano Auzoa • OÑATI

ezpeleta
etxea

Harizko eta kotoizko
goimalako izara eta mantelak
Barrenkale 44 **BERGARA**

Jaialdia


▼ **III. Fontsi Memoriala** dela eta, hainbat kirol ekitaldi antolatu dira larunbaterako Seminarioko patioan: goizeko 8etan 12 ordutako III. **Futbito Txapelketari** hasiera emango zaio.

11etan, **Mendi Bizikletako III.** Trabiesa korrituko da eta 12.30etan salda eta txorizoa banatuko dira bildutakoen artean.

Arratsaldean, berriz, **Trialsin erakustaldia**, II. **Herri Milla** eta, bukatzeko, **sari banaketa** iluntzeko 8etan.

Aukeran

▼▼ **Udazken Kulturala** larunbatean hasi eta, ohizkoa den bezala, Gabonetako Kontzertuarekin amaituko da. Aurtengo egitarauari hasiera emateko, 1.990an Tolosako Abesbatzen Jaialdian lehen saria jaso zuen **Rigako Haur Abesbatza** ekarri dute antolatzaileek. **Larunbatean**, arratsaldeko 8etan **Sta. Marinako** Parrokian.



Kirolak

▼ Futbola:

• **Bergara - Urola** (lehen mailako kadetea). **Larunbatean** goizeko 9.45etan Ipintzan.

• **Bergara - Beasain** (infantilak). **Larunbatean** goizeko 11.30etan Ipintzan.

• **Bergara - Baskonia** (2. errejionala). **Larunbatean** arratsaldeko 16.00etan Ipintzan.

▼ Futbitoa:

• **Futbito Txapelketa astebukarran** Kiroldegian.

• **Fontsi Memoriala:** Seminarioko patioan goizeko 8etan hasita.

▼ Eskubaloia:

• **Bergara - Beasain** (gazte mutilak). **Larunbatean** arratsaldeko 16.00etan Kiroldegian.

• **Bergara - Zarautz** (kadete neskak). **Larunbatean** arratsaldeko 17.15etan Kiroldegian.

▼ Pelota:


• **Bergara - Arrasateko** (alebin, infantil eta kadeteak) **igandean** goizeko 11etan **Frontoian**.

▼ Saskibaloia:

• **Ibili Bergara-Hotel Hogar** (senior gizonak), **larunbatean** 18.30etan Kiroldegian.

• **Bergara-Almen B** (kadete neskak), **igandean** 10.30etan.

5



PROFESIONALAK

• **Soroa III.a** eta **Alberdi III.a / Ansotegi** eta **Andueza VI.a**.

• **Laduche** eta **Martinikorena / Urionaguena** eta **Errasti**.

• **Gabilondo** eta **Garaita / Kalonge** eta **Guenetxea**.

Larunbatean,
arratsaldeko 16.30etan
Udal Pelotalekuan.

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa" 79 27 70 ARRASATE



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

Geroarekin konpromezua hartu

Ekologisten ahotsa entzuna izan dadin, baliabide ekonomikoak edukitzea ezinbestekoa da.

Batzuetan kanpaina batzuk alde batera uztera behartuta geratzen gara, edo bere osotasunean bete gabe utzi diru faltagatik.

Egoera hau gainditzeko bideak jartzen ari gara jadanik. Lehenengo pausoa, ekologista zintzoak garenaz, ahal dugun guztia aurreratzea, peza bat ere xahutzeke.

Hala ere honekin soilik ez da nahikoa. Horregatik bazkideak lortzeko saiakera egiten ari gara. Eguzkiren bazkidea izanik, kuota bat ordaindu eta ahaztea baino gehiago proposatzen dizuegu: arazo ekologikoen informazio zehatza, eta gure ekintzen berri jasoko duzu.

Eguzkiri ekonomikoki laguntzea gure ingurugiroaren defentsari laguntzea da. Zure aportazioak laguntza haundi bat suposatuko digu gure lana eraginkorragoa egitea oztopatzen diguten obstakulo batzuek gainditzeko.

Eguzki

Euskeraren alde lanean

Kaixo denori!

Ni Bergarako Euskal Herrian Euskaraz taldeko partaide bat naiz. Eta ondorengo lerroetan talde honetan lan egiten nola hasi nintzen kontatuko dizuet.

Ba ni orain artean euskal eskolatan ikasten aritu izan naiz eta bertan ikasleok dena euskeraz ikasten genuen arren, jendearen arteko komunikazioa gero eta gehiago erdarazkoa izaten zela konturatu nintzen. Gure inguruneko komunikabideak ere hizkuntza arrotz hura erabiltzen zutela konturatu nintzen.

Beraz, Bergaran Euskal Herrian Euskaraz taldea zegoela jakin nuen, eta bi aldiz pentsatu gabe, beraiekin lanean hasi nintzen. Orain artean zenbait ekintza egin ditugu baina aurten ekintza hauek ugartzeko gogoarekin bildu gara. Baina noski, helburu hau lortu ahal izateko gure taldean jende gehiagoren beharra daukagu. Beraz, zure aldetik zenbait egin nahi baduzu, etor zaitez ostiralean gaueko 10.30etan Seminarioko lokaletan egingo ditugun bileretara, zuen denon laguntza eskertuko bait genuke.

EHEko partaide bat

Bergarako Gida Komertziala


Urte amaierarako proiektu berriak ditugu Berrigararen. Hori-en artean bat Bergarako Agenda. Eta agendaren barruan Bergarako dendari, profesional eta enpresa guztien helbide eta telefonoak eman nahi ditugu behar bezala sailkatuta. Telefonolistenteko «Orrialde horiak» deitutakoen antzeko zerbait izango da, baina Bergarako. Bertan agertzea merke-merke izango da: 1.000 pta. baino ez.

Gure asmoa gainera hementik aurrera urtero ateratzea izango litzateke eta aurrerantzean kobratu gabe.

Agendak, Gida Komertzialarekin batera, beste hainbat helbide eta telefono ekarriko du: larrialdietarako telefonoak, kultur eta kirol elkartenak, elkarte gastronomikoenak, etab.

Gida honetan agertu nahi duzuen guztiok aukera izan dezazuen, laster izango duzue gure publizistaren bisita. Etzazu galdu aukera eder hau!

Tiira ba!



Josu Okino

□ Jubilatukoak

Larunbatean, hilak 25, Jubilatuen Eguna ospatuko da Osintxun. Eguerdiko 12etan, Aritzeta Abesbatzak lagundutako Meza izango da, ordu bat t'erdietan Aritzeta kontzertua eskeiniko du eta ondoren trikitilariak alaitutako bazkaria izango da Txuringo Jatetxean.

□ Eguzki

Eguzki talde ekologistak paper birziklatua erabiltzeko eta jasoketa hautetsia egiteko eskaera egin dio Bergarako Udalari, paper birziklatuaren erabilketa indartzeko hasitako kanpainaren barruan.


□ EGA

Larunbat honetan, urriak 24, EGA titulua ateratzeko klaseak hasten dira Bergarako UNEDen.

Larunbatean hasiko da aurtengo Udazken Kulturala

Asteartean aurkeztu zen Kultur Etxean urriaren 24tik abenduaren 19ra bitartean gure herrian ospatuko den Udazken Kulturala. Orainarteko Azaro-abendu Musikala izan denak aurtun 2 milioi eta erdi pta.ko aurrekontua izango du eta guztira 8 emankizun izango dira.

Larunbatean, urriak 24, Rigako Haur Abesbatza osatzen duten 40 neskatilek eskeiniko dute lehen kontzertua Sta. Marinan 8etan eta ondoren, Finlandiako Tapiola Abesbatza (urriak 28), Errenteriko Landarbaso Abesbatza (urriak 31), Traspasos taldearen dantza emankizuna (azaroak 8), Georgiako Operako Orkestra (azaroak 15), Bergarako Udal Banda (azaroak 22), Musika Eskolako taldeak (abenduak 11) eta, amaitzeko, ohizkoa denez, Gabonetako kontzertua



iragarri da Bergarako talde guztiekin abenduaren 19rako. Azken honetan, Orkestra Sinfonikoak, Aritzeta Abesbatzak eta Orfeoioak Haendelen *Mesias* oratoria eskeniko digute San Pedron.

Kalitateak gora

Luis Abajo Kultur taldeak, Jaiak eta Gazteria

Batzordeko arduradunak adierazi zuenez, *"aurreko urteetan baino emankizun gutxiago dira baina kalitateak gora egin du. Beste musika estiloak falta badira, batipat leku aproposik ez dagoelako da"*.

Saio bakoitzerako sarrerak zein iharduera guztietarako bonoak (2.000 pta.), Kultur Etxean egongo dira salgai.

Odol Emaleen festa

Oñati eta Bergarako Odol Emaleen Elkarteek beren zilarrezko eztaiak ospatu zituzten igandean Bergaran. Goizeko 11etan Udal Musika Bandak lagundutako Meza Nagusia entzuteko San Pedro jendez gainezka egon zen.

Odol Bankuaren arabera gure herrian 848 odol emale badira ere, ondoren 300 bat lagun, udal ordezkariak tartean, Labegarrietako Kiroldegian bildu ziren lagunartean bazkaltzeko. Bazkalostean, gutxienez 25 donazio egin dituzten 18 odol emale bergarrek domina eta plaka bana jaso zuten oroigarri gisa, Oñatiko 4 odol emalek ere sari bera jasoz.



IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g Tfnoa: 76 05 01

□ **Jubilatuak**

Bergarako Jubilatuen Egoitzak bazkideen artean, eta ondo pasatzeko asmoz, abesbatza sortzeko asmoa azaldu du eta, beraz, interesatuei azaroa baino lehen Egoitzako konserjerian izena emateko dei egiten zaie. Ez da beharrezkoa inongo musika ikasketarik egina izatea.

□ **Kirol argazkiak**

Bergarako Udal Kirol Zerbitzuak antolatu duen Kirol Argazki Lehiaketaren bigarren ediziorako lanak aurkezteko epea datorren azaroaren 18an amaituko da. Zuribeltzean zein koloretan, lehen hirurek 20.000, 15.000 eta 10.000 pta. eta trofeo bana eskuratuko dute. Argazkiak 30x 40 zm.ko kartulinarik entregatu beharko dira eta epimahiaren erabakia azaroaren 21ean emango da jakitera.



Justo Garate Beka

Rosa Ramos Alfaro Euskal Filolojia lizentziatutako 26 urteko iruñe-arrak eskuratuko du Bergarako Udaleko Kultur Zerbitzu Batzordeak kaleratutako Justo Garate Arriola Beka. Guztira, komunikazio ereduak, linguistika, filosofia, historia, soziolinguistika, soziologia edota euskal literatura ikergai zituzten hamar proiektu (ez zegoen bergararren batek egindakorik) aurkeztu ziren.

UNED, Eusko Ikaskuntza, Justo Garatek berak izendatutako ordezkaria eta partidu politikoeekin osatutako Ebaluaketa Batzorde-

ak Rosa Ramos Alfaren "Nafarroako egoera demolingüistikoa" proiektuari bekaren 935.000 pta.k ematea erabaki zuen.

Epimahiaren esanetan, *"Justo Garate Arriolaren ildoari jarraitzeko proiektu duina da, kalitate handiko beste batzuren artean hautatua"*.

Rosa Ramosek euskararen galera Nafarroan eta berreskurapen indarren azterketa egingo du azarotik datorren urteko irailera bitartean.

Ebaluaketa Batzordearen erabakiaren arabera, Udalak lan hori argitaratzeko aukera izango luke.

□ **Bertso-afaria**

Elgetako Ostatu tabernan bertso-afaria egongo da datorren azaroaren 6an Peñagarikano eta Sebastian Lizaso bertsoariekin. Afariaren prezioa 3.000 pta.koa da eta izena emateko epea azaroaren 3ra arte zabalik egongo da Ostatu tabernan.

□ **Pello Alberdi**

Elgetar margolari honen erakusketa ikusgai izango da igandera arte, urriak 25, Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalean.

□ **Zuzenketa**

Joan den urriaren 4eko Ezohizko Plenoan Udalak etxebizitzaren plusbaliak orainarte bezala jarraitzea erabaki zuen eta beraz ez da aipatzen genuen % 7ko igoera emango. Obra guztiei, berriz, % 4eko koefizientea aplikatuko zaie (3.600 pta. izango da minimoa) eta fatxadak konpontzeko zerga kendu egingo da.

EDEL
tapizdenda

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA

UDAZKEN KULTURALA

Urriak 24,
Larunbata

Arratsaldeko 8etan,
Sta. Marinako Parrokian

Rigako Haur
Abesbatza
(Letonia)

Tolosako Abesbatzen Lehiaketan
1.go saria jaso zuen 1.990.ean

Urriak 28,
Asteazkena

Arratsaldeko 8etan,
Sta. Marinako Parrokian

Tapiola
Abesbatza
(Finlandia)

BBCko lehiaketan 1.go saria jaso
zuen abestalde ezaguna



Errepideak konpontzen

Yarritu enpresak Angiozarretik Elgetara doan errepidea konpontzeko lanetan dihardu. Lan hauek bi fasetan buruko dira; batetik Angiozarretik Asentzioraino doan bidea asfaltatuko da eta, bestetik, Elgetatik Kanpazar aldera kunetak egin eta 2'2 Km. tan bidea asfaltatuko da. Lanak, bide onetik badoaz, martxo aldera bukatuta izango dira.

Aurrekontuko 50 milioi pta.k Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Azpiegitura Departamentuak ordainduko ditu.

Bestalde, Epele eta kanpazarren artean egin

beharreko errepidea Iruñeko Marizkurrena enpresak egingo du eta, oraindik Diputazioa eta enpresaren arteko akordioa sinatu ez den arren, lanak agian hilabete barri hasi daitezkeela esan digute Marizkurrenako ordezkariak.

Azkenik, Arrasatetik Bergararainoko autobidea eta Bergara GI-632 errepidearen, hau da, Bergaratik Beasainera doanaren, saihesbidea eraikitzeke proiektua 140 milioi pta. tan onartu du Diputazioak eta adjudikazio oinarriak berehala kaleratuko dira Diputazioan adierazi digutenaren arabera.

Txinpartak

✓ **Aranzadi Ikastolak** Matxiategin duen ikastetxeke patioa aurrerantzean kirola egiteko erabili ahal izango da, larunbatean egun osoz eta igande goizetan.

✓ **Elgetako Jubilatuen Egoitzak** azaroan jokatu diren tute, mus, briska eta puntxoapelketak antolatu ditu. Urriaren 31a izango da izena emateko azken eguna.

✓ **Juanjo Altuna** bergararrak 2. saria lortu zuen joan den igandean Beasainen jokatuako Margo Lehiaketan.

✓ **Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak** gurasoendako sexu heziketari buruzko ikastaroa antolatu du azaroaren 9tik 30era. Interesatuak izena Anbulategian eman dezakezue.

✓ **S.E.O. Espainiako Ornitolojia Elkarteak** Belchite inguruan (Zaragoza) egin nahi duen ornitoloji erresebarri laguntzeko **Mendia Bizirik** taldeak Pol-Polen kutxa bat jarri du. Estepa lursail bat salbatzeak 10 pta.ko kostatzen du.



PAPERDENDA

Marcó

Bidekurutzeta, 44
Tel. 943 / 76 05 54
Fax. 943 / 76 05 54
20570 BERGARA



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

Bizi Alternatiboaren 6. edizioa

Drogen gehiegizko kontsumoari ordezkioak topatu nahian

Drogomenpekotasun Prebentziorako Udal Zerbitzuak, Kirol eta Kultura Zerbitzuekin batera, urriaren 26tik azaroaren 1era arte ospatuko den Bizi Alternatiboaren VI. edizioa antolatu du.

Ihardunaldi hauen helburu nagusia drogomenpekotasunaren alternatiba bezala aisialdia bultzatzea da eta, aurreko edizioetan bezala, mahai-inguruak, jolasak, kirola, zinea, antzerkia, musika eta beste hainbat ekitaldi iragarri dira astialdiaren alternatiba bezala datorren asterako.

Arantzazu Loidi Drogomenpekotasun Prebentziorako Udal Zerbitzuko arduradunaren esanetan, "orainarte emandako partaidetzarekin pozik gaude. 20 talde ezberdinek parte hartu izan dute eta aurten talde gehiago izango dira". Arantzazuk dion bezala, "bi helburu ezberdin dira; batetik partaidetzarena eta bestetik jendea sensibilizatzearena, aisialdiaren erabilera egokiena izan dadin; segun ze erabilera ematen diogun prebentiboa edo ez izan daiteke. Gure bizimoduak, lana tartean, ahalik eta osasuntsuena izan behar du".



Ekitaldiz jositako aste alternatiboa

- **Mahaingurua** "Denbora librea prebentzio ingurujne bezala". Astelehenean 19.00etan Kultur Etxean.
- **Mahaingurua.** "Gazteen elkarteak: gaur egungo egoera, etorkizuna..." Asteartean 19.00etan Kultur Etxean.
- **Hitzaldia.** "Gazteek toki berezirik behar dute?". Jakue Pascual soziologo eta El Tubo musika aldizkariko erredaktoreak emanda. Asteazkenean 19.00etan Kultur Etxea.

- **Zinea.** "Haz lo que debes". Ostegunean 19.30etan Novedadesen.
- **Badminton erakustaldia,** Kukuma hankapalu taldearekin kalejira eta Oihulari taldearekin antzerkia. Ostiral arratsaldean San Martin plazan eta Gaztetxean.
- **Kirol iharduerak** eta mural margotzea larunbatean goiz eta arratsaldez. Gauean, berriz, SPOK, REQUIEM

eta DAXKA taldeekin rock kontzertua Gaztetxean.

- **Bizikleta Martxa,** Moises Azpiazu Dantza Taldea, Musika Eskolako Trikitilari eta Gazteen Banda, liburuen azoka, pintoreak, zeramika erakusketa, TAUN-TAUNen txontxongiloak, irratizaleak eta salda eta txorizoa igande goizean. Arratsaldeko 8etan; berriz, LA DUDA taldearekin rock kontzertua Gaztetxean.



ELKORO

Elektronika Arrasate, E.A.
Canal + eta Sony
Banatzaile ofizialak
Gure denda berria ezagutu ezazu
 Olarte, 1 Tfnoa: 79 18 86. Faxa: 77 09 36.
ARRASATE



AKORT

- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorentzo, 7
 behe. Tel. 76 50 39

Imanol Sorondo. Don Imanol. Astero-astero Bergarako ermittak izeneko atal honetatik, gure herriko 38 ermiten berri ematen izan dugu. Jarraian doakizuen elkarrizketatxo honekin amaiera emango diogu urtebete luzez, Berrigarán sail fijoá izan den honi.

Imanol Sorondorekin berriketan: "Gipuzkoan ez dago horrenbeste ermita izan duen herririk"



"Oartzunen jaioa naitzen arren, ni Bergarakua naiz, asko maite dut Bergara, nere bizitzako urterik onenak han eman ditut eta. Jatorrak, jende ona zarete bergararrak".

Imanol Sorondoren hitzak dira, gure herrian 25 urte bizi izan den apaizaren hitzak. 25 urterekin apaiz ikasketak bukatu zituenean, Bergarako Santa Marina parrokiara destina-tu zuten eta bertan bizi izan da orain dela 9 urtera arte.

Gur egun Oartzunen bizi da eta Añorgako parrokoa dugu. 59 urte ditu.

- Urtebetez jardun duzu Berrigarán Bergarako 38 ermitei buruzko informazioa ematen, lan dexente...

- Ez hainbeste, zeren eta lehendik argitaratua nuen "Las 38 ermitas de Bergara" izeneko liburua erdaraz. Esan genezake, lan bakarra testuak euskaratzea izan dela.

- Dena dela, aipatutako liburua idazten ordu piloá sartuko zenuen?

- Bai, lan asko eman zidan, datu asko ziren eta inoiz aztertu gabeko gaia. Liburua 1.982an argitaratu bazen ere, orain dela 20 urte inguru ekin nintzen datuak pilatzen.

- Eta zerk bultzatuta hasi zinen lan horretan?

- Behin Ozaetako San Martín ermitan San Martinen irudia ikusi nuenean

erabat txundituta geratu nintzen, aurpegiak zeukan zahar itxurarengatik. Handik aurrera horrelako gaie-taz kezkatzen hasi nintzen eta ikerketari ekin nion.

Beste behin, San Pedroko artxiboatán begiratzén ari nintzela gauza harri-garria gertatu zitzaidan: 1.348ko idazki batetan 100 bat oxirondotarren izenak agertzen ziren, Bergarako-ak egin zireneko garaioak.

- 38 ermita Bergaran. Asko direla uste al duzu?

- Bai, noski asko direla, kontutan hartuta, gainera, Angiozarkoarekin hiru parrokia daudela Bergaran... Gipuzkoan ez dago horrenbeste ermita izan duen herririk.

- Beste inon horrelako ikerketarik egin al da?

- Ez, herri bateko ermiteti buruzko horrelako ikerketarik ez da inoiz egin Gipuzkoan.

MAKAILO

Makailau kazuelak gertatzen ditugu

Ibargarai 15

MINER Ardo onak, ardóak jakina

Billegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

HARATEGIA
ANTIA
URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

ederju

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23


Tfnoa: 76 29 65

BERGARA

"Oso esperientzia polita da Amerika ezagutzea"

VICTORIO BEAIN Frantziskotar bergararra

Victorio Beain frantziskotar bergararrak urrezko eztaiak egin berri ditu abadetzan. 50 urte hauetako zatirik handiena Ameriketan pasa du misiolari lanetan, eta hantxe jarraitzen du 76 urtekin Puerto Ricoko San Juan hiriko parrokia batetan. Azken aste hauetan Bergaran izan da, bi urtetan behin hartzen duen oporraldia bere familiarekin pasatzeko.



- Ez al dira apaizak jubilatzen?

- Beno, hori bakoitzaren kontua da, hemen badugu San Pedro elizan Don Jose Maria Azkarateren adibidea, 85 urte ditu eta ez da jubilatatu. Gu ere halaxe gaude han.

- Zein adinean sartu zinen Seminarioan?

- 12 urte nituela joan nintzen Arantzazuko Seminarioa. Nik banituen lagunak fraile joanak zirenak eta ezagutzen nuen apaiz batek animatu ninduen. Berak Arantzazuri bu-

ruz hitzegin zidan eta hala xe joan nintzen.

Modu horretan joaten ginen ume gehienak apaiz garai hartan.

- Ez zenuen inoiz uzteko asmorik izan?

- Ez, ez, nik aurrera ja-

rraitu nuen hortan eta gaur arte. Gerra Zibilaren garaian izan zen etenaldia bakarra. Ni Oliten nengoan apaiz ikasten eta frontero joatera behartu gintuzten. 3 urte pasa nituen frontean eta urte onak izan ziren horiek, lagun minak egin nitu-

PRiMi

- Mariskoak, arrain fresko eta izotzuak .
- Etxerainoko zerbitzua

Merkatuan Tfnoa: 76 15 90
San Antonion Tfnoa: 76 21 08
Matxiategin Tfnoa: 76 21 91

KAILASH ZENTRO ESOTERIKOA

Parasikologi Zientzien Instituto
Hispano Amerikarrean
diplomatutako profesionalak
Tarota • Hipnosia • Erresonantzia
Tfnoa: 76 01 31 (Iris)

Tximak Ileapaindegia

Fraikoziuri 3, Tfnoa: 76 56 69

en han.

- Eta gero Ameriketara joan zinen...

- Bai, bigarren Mundu Gerraren garaian joan nintzen ni Ameriketara, 1.945-an. Kubara joan nintzen lehenengo eta han egon nintzen 16 urtez, 14 guk Kuban irekitako Seminarioan eta gero parrokia batetan. Orduan Fidel Castroren iraultza hasi zen eta handik bota gintuzten apaiz gehienak. "Bahia de Cochinos"eko inbasioaren ondoren izan zen, 1.961eko irailean. Han hemenkako elizetako apaizak atxilotu, ni tartean, eta La Habanara eramán gintuzten polizia eta soldadu artean. Han "Covadonga" transatlantikoan sartu eta Espainiara bidali gintuzten.

- Baina berriro Ameriketara itzuli zinen...

- Bai, hilabete batzutan hemen izan nintzen, etxean, baina gero misiolari talde batetan sartu ninduten, eta 6 urtez ibili ginen hainbat herrialdetan zehar, Colombia, Ecuador, Ertamerika eta Peru. Gero Meji-kon izan nintzen, urte bete Espainian egin ondoren, eta azkenik Puerto Ricora joan nintzen; han jarraitzen dut.

- Nolakoa da bizimodu Hego Amerikan?

- Oso bizimodu gogorra da, pobrezia izugarria da herrialde haietan, baina gogoeta zoragarriak gordetzen ditut misiotan ibili nintzen urte haietatik. Jen-



Antzinako argazkian, Victorio (ezkerretik hasita azkena) Sullanara egindako misio batetan.

dea oso ona da, leku batzuetan oso erlijiozaleak dira, beste batzutan superstizio handikoak, baina ongi hartu gaituzte beti leku guztietan. Holakoxea da Hego Amerika, edo horrelakoa zen, behintzat. Oso esperimentzia polita da Amerika ezagutzea. Ahal duena, joan dadila.

- Eta orain urrezko ez-taiak egin dituzu...

- Bai, 50 urte pasa dira apaiz egin nintzenetik, baina piskanaka piskanaka pasatuz joan dira eta konaturatu gabe etorri zaizkit. Oso ospakizun hunkigarriak izan ditut urteurren honen inguruan.

Lehenengoa familiarean izan zen, Goenkaleko monjen elizan, ni jaio nintzen kalean.

Beste bat San Martin egunean egin genuen San Pedro elizan, Meza Nagusian. Udaletxeko ordezkari-

riak izan ziren, eta San Martinen irudiaren oroigarri bat ere eman zidaten; oso gauza berezia izan zen niretzako.

Hirugarren ospakizuna Arantzazun egin genuen; duela 50 urte gure lehenengo meza eman genuenetik geratzen garen 12 apaizak bildu ginen, eta hantxe ospatu genuen guztion artean.

- Eta orain Puerto Ricora itzuliko zara... Nola bizi zara han?

- San Juan, Puerto Ricoko hiriburuko parrokia batetan nago. Ez dago hiriburuan bertan, baizik eta kanpokaldeko auzo batetan. Hiru apaiz gaude han, gazte bat eta bi edadetuak, beraz, apaiz t'ardi egiten dugu gutxi gora behera hiruron artean. Eguneroko meza ematen dut, eta despatxoaz arduratzen naiz.

Honez gain gaixoei bisitak egiten diet, eta eliza-

ren inguruan sortzen diren taldeekin noizean behin bileraren bat ere izaten dut. Apaiz batek nahi adina lan egin dezake, baina ni zahartuta nago jadanik eta ez dut lan gehiegirik hartzen. Denbora librean idaztea gustatzen zait eta badut liburuxka bat argitaratua. Duela urte gutxi batzuta San Frantziskoren mendeurren ospatu genuenean bere bi-zitari buruzko kontuak idatzi nituen, elizan banatzeko asmoz batez ere, eta bai Hego Amerikan baita hemen ere argitaratu egin dute. Orain "El Caribito" izeneko orritxo bat ateratzen dut historiotxoak umorezko kutsuaz kontatuz, frantziskotarren eta euren familien artean banatzeko...

- Noiz ikusiko zaitugu berriro Bergaran?

- Bi urte barru hemen izango nauzuela espero dut.

**JOSE
LUIS
eta
MIKEL**

Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa. Etxebarruen dekorazioa

Urteaga 6, Tfnoa: 76 50 37 / 79 35 17



**zumelaga
JATETXEA**

San Antonio 5 BERGARA
Tfnoa: 76 20 21

**IGARZA
MERZERIA
LENZERIA**


D. IRALA 5
Tfnoa: 76 24 88 BERGARA

Foto Sistema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50



**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
ONATI

TOKI-EDER Taberna

Pintxoak eta
eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

Konsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa erabili al duzu inoiz?



Carlos Rodriguez
24 urte, ikaslea

Ez nekien zegoenik ere, gainera ez dut sekula batere problemarik izan gai horretan eta ez dut erabiltzeko beharrik izan.




Maria Luisa Biain
68 urte, etxeoandrea

Oraintxe enteratu naiz, beraz ez dut sekula erabili, baina ondo iruditzen zait, ondo dago horrelako zerbitzua goatea.



Ascensión Navajo
29 urte, etxeoandrea

Ez naiz inoiz egon, baina badakit udaletxean dagoela. Beharrezkoa ikusten dut.



Lucas Diez
64 urte, jubilatua

Ez, ez dut inoiz erabili baina beharrezkoa ikusten dut konsumitzaileen intereserako.

DIALEKTOLOGIA

IRAKASLEA: Xabier Pardo
NOIZ: Ostegunetan, 7etatik 9.30etara.

1.992-XI-12 / 1.993-V-27

NON: UNEDen.

GAIK: Dialektologiako kontzeptuak, Geografia Linguistikoa (mapak, isoglosak, euskalkien ezaugarriak, etab.

MATRIKULA EPEA:

Urriaren 19tik azaroaren 7ra.

MATRIKULA TASAK:

10.000 pzta.

UNED

Euskal Kultur
Departamentua

IKASTAROAK

**BERGARAKO
UDALAREN
LAGUNTZAZ**

BERGARAKO EUSKARA

IRAKASLEA: J. M. Elexpuru
NOIZ: Asteazken eta ostegunetan, 7etatik 9etara

1.992-XI-11 / 1.993-II-25

NON: UNEDen.

GAIK: Aditza, hiketa, lexikoa, idatz-ariketak, etab.

MATRIKULA EPEA:

Urriaren 19tik azaroaren 7ra.

MATRIKULA TASAK:

8.000 pzta.

OHARRA: Ikastaro honen amaieran matrikula erdia (4.000 pzta) itzuliko zaie Bergarakoei baldin eta klaseen % 85era asistitzen badute.



Arau zigortzaileak

XXI. mendea gure gainean daukagu jadanik, baina honek ez dirudi gizarte liberal honetako talde batzuegan eragiten duenik. XXI. mendea gure gainean eta batzuk oraindik Erdi Aroan. Eliza Katolikoak, edo behintzat bere buru den Vaticano horoskopoa irakurtzea, masturbatzea edota harreman homosexualak edukitzea pekatutzat edo jokaera ez zuzentzat jo ditu. Harrigarria benetan.

Idea guzti hauek ez ziren kezkatzekoak izango Vaticano pentsakera soil bezala aurkeztuko balitu. Oraingon, ordea, inposatu egin nahi ditu eta botere legegileari arau zigortzaile eta diskriminatzaile hauek lege bihurtzea eskatu dio. Honekin batera, eta gure harridurarako, heriotz zigorra arrazoitua egon daitekeela azaltzen digu Vaticano. Bakea eta maitasuna bultzatu behar dituen erakunde batentzako mendekua moral aldetik onargarria da ez, ordea, askatasun sexuala.

Gainera nor dio mundu honetan guztiak katolikoak garenik? Vaticano jarraitzen dionak egin dezala bere gorputz eta pentsakerarekin nahi duena, eta moral aldetik mugak baditu bereak izan daitezela bakarrik. Ez dut uste, aldiz, protestante, budista, islamiar edo ateo batek bere kanpo dagoen eleiza baten arauak bere gain hartu beharra duenik, ezta arau horiek gizarte guztirako lege izan behar direnik ere. Vaticano bai oster. Ez al dira konturatuko giza ekubideen deklarazio guztiak ahazten ari direla? Arlo askotan oraindik XV. mendean aurkitzen gara.

Mikel Lizarralde



Udazkena

Ez dittun egun asko. Udazkena gustatzen jatela esan eta melankoliko bat naizela erantzun jostanan Amaiak, lagun batek.

Udazken barruan be naixao jittunat hegoaize egunak, keizpetik eguzkitara pasautakoan sentitzen donan epeltasun hori, baina eurixa hasitakuan ez jatan inporta izeten guardasola zabaldu, baten bati azpitan sartzeko eskeini eta etxealdera abiatzia.

Urte sasoi hontan udaberrian edo udan baino ordu gehixao itten jittunat jarrita, telebisio aurrian, periodikuko notiziak edo artikuluak goititik behera leitzen eta kontuak esaten. Zaharrenak aspaldiko ipuinak eta kontakizunak ekartzen jittune gogora eta gaztienok geuri gertatutako xeibrekeixan bat botatzen jonau aintzinako kontakizunei aurre eitteko.

Lagunen etxetako egongelak be leku egokixak dittun orduak pasatzeko, beste era batera, beste klase bateko gaixekin. Aurreko baten haxe esan jonan... ez jatan akordatzen zeinek: "Antzuolan be teknikia nagusi da eta adelantua giza portaeren gainetik jarri dira eta ez dot ikusten hori zela aldatu leikien". Ez jakon arrazoirik falta.

Xabier Leteren "Habanera" k eta Oskorreren "Ezin ahaztu" k ez jone ezer esaten, ez jone "jaten emuten". Eta berdina gertatzen don ezezagunen baten erantzuna jasotzeko asmuakin itsasora (botila batean sartuta) edo aidera (uso batekin) geruau ta itxaropen gutxiagokin jaurtittako kartekin. Udazkenian konturatu non teknikiak eta teknika-zaletasunak jan dittuela sorpresak eta orijinalidiak.

Joseba Lezeta

BIZKOTZOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - 55

BERGARA

LXUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak.
Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34

Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

HAGIN KLINIKA

Idoia Iriarte Irueta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

ANDUZU

ERAIKUNTZA MATERIELAN BILTEGIA

Azulejo erakusketa •
Onduline • P.V.C. • Blokeak •
Pinturak • Adreiluzko
boteilatokia • Mailazua •
Garraioak egiten ditugu •

Telleriko Lana Pol. Ind. San Juan.
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA



□ Ciriaca eta Sebastian, zorionak!!

Ciriaca Loidi eta Sebastian Laskurain bergararrek Angiozarko San Migel elizan ezkondu zireneko 50. urteurrena ospatu zuten pasa den urriaren 8an. Ez da ez eguneroko gauza urrezko eztaiak betetzea eta Ciriaca eta Sebastianek familiartekoekin zelebratu nahi izan zuten hain berezia den fetxa hori. Hortarako, lehenbizi Monja Zaharretan meza entzun eta jarraian bazkari ederra izan zuten festa borobiltzeko. ZORIONAK Ciriaca eta Sebastiani eta, badakizue, hurrengo etapa platinozko eztaiak...



□ Pareta behera

Mariaren Lagundiko

Ikastetxeak Espaloi aldera duen pareta, bertan behera bota du aste honetan **Mauricio Arregi** enpresak hemendik udara bitartean bertan burutuko den urbanizazio proiektua gauzatzeko. Horrela, behin lanak amaituta, datorren urteko udan argazkian duzuen Mintegi kalea trafikora zabalduko da eta Espaloia berriz, peatonala izango dugu. Herriaren etengabeko aldaketak...

BERGARA BOLTSAK

- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetariko konfekzio industriala
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA



□ **1.942eko kintoen urrezko eztaiak**

Joan den igandean argazkian dituzuen **1.942ko kintoek** beren urrezko eztaiak ospatu zituzten. Goizean meza izan zuten Trinidadetan hildako laguneroimenez eta ondoren 15 bat lagun Lasa Jatetxean bildu zitzaizkigun majo bazkaltzeko. Aspalditxo ez zirela bitzen eta fetxa berezi honetara helduta ezin zuten hutsik egin. Bazkalostean, azken urteotako... eta aspaldiko kontuak ere komentatuko zituzten, dudarik ez. Eta datorren urtean ba, urrezko eztaian ondorengo urtea ospatu behar!! Ez ala?



□ **JARDUNeko bideoak**

JARDUN Eikarteak, iaz bezala, haurrentzako bideo emanaldiak eskeiniko ditu hamabostean behingo larunbatetan Kultur Etxean. Joan den larunbatean haur dexente hurbildu ziren *Gremlins* bihurriekin barre egiteko. Hurrengo emanaldia, urriaren 30ean, *Asterix Galiarra* izango duzue goizeko 11tan. Ez galdu aukera!!


Zertan dihardute ba?

PATXI GOIKOLEA



Aranzadi Ikastolak martxan jarri duen Bertso Eskolako arduradun berria dugu arrasatear bertso irakasle hau. Guztira, bi taldetan banaturik, 45 bat neska-mutil ari dira eskolan parte hartzen.

BIDELUZE-ELIZBURU



Euskadiko Mendi Igoera Txapelketan Angel Bideluze eta Alex Elizburu bergarar motorzaleak sailkapeneko lehen eta 2. postuan dira, txapelketa amaitzeko Gorla (azaroak 8) eta Jaizkibelego probak falta direnean.

ITXASMENDI
Taberna
 Barrenkale 36
 Tfnoa: 76 50 64
 BERGARA

ileapaindegia
 eder gela
disdira
 Mahasterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

SUBIJAI
 Gazteentzako moda
 Irizar 1, Tfnoa: 76 42 41

Umore giroan

Berunezko txapela ala?

Patxikok eta Angel Trebiñok, denpora baten, soziuak ziran eta sopleteko tallarra zeuken. Ekarki dabe tallerrerako makiña barri bat. Etzan, baiña, erraza aren mekanismua aitzia. An zebillen Patxiko burua apurtzen. Orretan, etorri da Trebiño, eta esan detsa:

- Patxiko, artu detsak mañia makiñari?

- Ez ba oindiok.

- Kantzaik burua!

Urrengo egunian, etorri da barriz, baiñan ez zeban Patxikok ondo manejatzen makiña. Trebiñok barriro:

- Kantzaik burua!

Bixamonian be, barriz entzun zebanian burua kantzatzeko, esan zetsan Patxikok:

- Kantzaik burua? Zer nai dok ba, berunezko txapel bat buruan ipintzia

ala?

Bartzelonan ziar

Patxiko ta Angel Trebiño jua dira Bartzelonara. Gabe baten, Ramblas-etan ziar zoiazela, zigarro pakete bat erosterakuan, konturatu zan an askok zigarruak banaka erosten zebela. Arritxuta, esan zetsan Angeli:

- I, Trebiño, gu "al día" bizi garala? Emen asko "al segundo" bizi ditxuat!

Gaba aurrera zoian, eta naiko kantsauta Trebiñok diñotsa:

- I, Patxi, lo eñ biarko juau...

Eta Patxikok:

I, Angel, ni ez nok lo eitxera etorri Bartzelonara. Nik eingo juat lo Eibarren.

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

Hiri ekintzak Erdi Aroan

Aiztogintza eta Artazigintza

Jakin badakigu 1.473.aren inguruan aiztogile artazigileen gremioa bazela Bergaran eta baita, XVI. mendean (1.566, maiatzak 13), Bergarar batzuk, hemen egindako aizto eta artaziak saltzeko, Merkatal Era-kundea sortu zutela Sevillan.

Industri hauen ondoan, eta batez ere azkenean aipatutakoarekin lotuta esan behar dugu bazela olagintzan eta honen aplikapenetan oinarritutako komertzioa ere. XIV-XV. mendeetako olen gorakadarekin, industria honen ekoizpena ekintza ekonomikoaren edozein arlotan beharrezkoak diren produktu salgarriari begira jartzen da. Nekazal aldeko herri-arrantzat, ferra, aitzurrak eta, orokorrean lanabesak edo erremintak egiten dira; Armada eta itsas-armadarentzat, guda jantziak, lantza, arkabuzak, aingurak, untzeak... (pentsa dezagun XVIIIan martxan zegoela jadanik Soraluzen Real Fabrica de Armas de Su Ma-

jestad" deitutakoa). Hiritarrentzako berriz eraikuntzarako edo beste ihardueterako beharrezkoak diren tresna guztiak prestatzen dira.

Ogibideak

Hainbat pertsonak industriari eta merkataritzari lan egiten badute ere, ogibide zehatzak dituzten pertsonak ere aurkitzen ditugu.

Dokumentuetan agertzen diren aipamenak, ogibide buruzkoak baino pertsonen buruzkoak dira. Baina honek, Erdi Aroan Bergaran ziren ekintza aneztasuna adierazten digu.

Dokumentuetako aipamenetan, hargin maixu eta zapata-erretariak, artazigileak, eskribauak, arotzak, zapata-erretariak, botikariak, kontulariak, jantzigileak, jostunak, zorroginak, tailaginak, saskigileak, zerrailariak, harakinak, galtzerdigileak, etab. agertzen dira, XV mendean.

A. Basterretxea


**TABERNA
ZAHARRA**

Jatetxea

**Bazkariak
eta
afariak**

Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR

**Kiroldegiko
Taberna**



Labegaraieta Tfnoa: 76 56 41



REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak


Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

KORTA-ZAR

Txokolategia


**Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 62



Barrenkale, 3. BERRARA • telf.: 943-765919

**Pintxoak, eguneroko menua eta karta bereziak ditugu
Betiko eta oraingo sukaldaritza**



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

BEATRIZ LEAL

Aurreko GALDE DEBALDEko erantzun zuzena hau zen: Martinez de Iralak "LA CIUDAD DE LOS REYES" hiria sortu zuen 1.543. urtean.

**BEATRIZ LEAL izan da aste honetako irabazlea.
ZORIONAK !!**

Eta besteok animatu, eta erantzuna eman aste honetako galderari!

HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak

Matxiategi, 4. 76 37 53


**Elektragailuak, TB,
bideoak, HIFI
aparailuak.**

Matxiategi, 3. 76 12 22




JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



BEATRIZ LEALEk jaso du aste honetan ARGAZKIk emandako saria.

HERRAN ETXEA



Sukaldeko altzariak.

Elektragailuak, TB,
bideoak, HIFI
aparailuak.

Hurrengo Galde Debaldeko saria
HERRAN ETXEAk emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

Ameriketa aldean bergararren islada aipatzerakoan ezin dugu ahaztu Sor Juana Ines de la Cruz (San Miguel de Nepantla 1.665-Mexico 1.695) idazle eta kultura haundidun anderea, geroago eman ziren mugimendu intelektualen aintzindari ere izan zelarik.

Bere idatzietan ederto agertu zuen zeukan kultura naila eta baita ere euskal izatearen nortasuna ere.

"De la Cruz" monja sartu eta hartu zuen izena da, benetakoa bergararra zuen aitarena zeukalarik.

ZEIN ZEN JUANA INESen BENETAKO ABIZENA?



izena

abizena

telefonoa

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

Kirola lagunartean egitea gustoko dute bergararrek

□ **Mendi Bizikleta**
Datorren igandean, urriak 25, Elgetako Udaleko Kirol eta Gazte Batzordeak antolatuta, Elgeta-Urkiola-Elgeta Mendi Bizikleta Ibilaldia jokatu da goizeko 9etan Plazatik hasita.


□ **Fontsi Memoriala**
Larunbatean, urriak 24, goizeko 8etatik arratsaldeko 8ak arte, Alfonso Miner "Fontsi" zenaren oroimenezko III. Memoriala jokatu da Seminarioan.

□ **Dirulaguntzak**
Datorren urtean Udalaren dirulaguntza jaso nahi duten kirolari, kirol talde edota kirol ihardueren antolatzaileek beren eskakizuna azaroaren 30a baino lehen Udal Kirol Zerbitzuan aurkeztu beharko dute.

Ostegunean Juantxo Madariaga UNEDeko zuzendariak, Carlos Vilches soziologoak eta Andoni Larrañaga kiroletako zinegotziak UNEDeko soziolojia departamentuak gure herritarren kirol ohituren inguruan burututako azterketa aurkeztu zuten.

627 inkesta

Miloi bat pta.ko aurrekontuarekin 627 inkesta egin dira eta Carlos Vilchesek hainbat datu ezagutzera eman zuen prentsaurrean; horrela, esate baterako, egunean 2/4 orduko aisialdia izaten du jendeak, aisialdiko denbora gehiena lagunartean igarotzen du (kirola hiru garren tokian dago), txirrindularitza da gehien egiten den kirola, langileak eta ikasleak dira kirol ge-



hien egiten dutenak, motibazio nagusia ondo pasatzearena izaten delarik. Kirol instalakuntzak baloraterakoan nota erdia ematen dute inkestatuek, tenis pistak batipat botatzen dira faltan, kirol talde ezagunena Pol-Pol Mendizale taldea dugu eta Udal Kirol Zerbitzua ez dela asko ezagutzen azaldu zuen.

Carlos Vilchesi biztanlegoa kirol zalea ote den galdetu zitzaionean, beste herri batzuetako datuekin konparatu beharra zegoela adierazi zuen. Andoni Larrañagak, berriz, *"sorpresa haundiena jendeak Udal Kirol Zerbitzua zein eskoletako kirol eskolak ez dituela ezagutzen izan da"* esan zuen.

Gorlako igoerarik ez

Gorlako Kotxe Igoeraren aurtengo edizioa bertan behera uztea erabaki du *Scratch* talde antolatzaileak, seguru etxeekin akordiorik lortu ez eta bidetaren asfaltatzea ere oraindik amaitzeke dagoelako. Horren ordez, *Scratch* taldeak *Karten* proba bat antolatzeko asmoa du Ibargarai kale ingurutan eta hortarako bi zirkuitu alternatibo aurkeztu ditu Udaletxean. Proba honen antolaketa posiblea atzo, urriak 22, Gobernazioetik pasa behar zen eta, Udalak baietza eman ezker, berehala hasiko zen Euskadiko Txapelketarako baliogarria izan litekeen proba hau antolatzen.



GESTORIA EGUREN

Maria Pilar Eguren Diez

Kolejiatutako administrazio gestorea
Simon Arrieta enparantza 3, behea.
Tfnoa: 76 21 65 / 76 24 45

Year ARTISAUTZA

Zapatak eta boltsak


Barrenkale, 9. Tfnoa: 76 22 86

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ Motorren bobinaketa
- ✓ Era guztietako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48



1.953ko urriaren 15eko uholdeak

Oraintxe 39 urte pasatxo dela izandako zoritxarreko gertakizun baten berri dakargu argazki honek. Erretratoa, konturatuko zinetenez Zubiaurren aterata dago. Garai hartako Diario Vasco adierazten zuenez, 1953ko urriaren 15ean normalean baino 7 edo 8 metro gehiagoko altuera hartu zuen eta Altos Hornosetik Zubietara bitarteko denda eta etxeetan 4.000.000 pta.ko galerak sortu zituen. Altos Hornosko lantegian, berriz, ura bi metroko alturara iritsi zen eta laminazino tren guztia hartu zuen eta altzairuaren labeak eztanda egin zuen. Igartuaren «Poleas» fabrikak ere izan zuen kalterik, zenbait makina eraman bait zizkion; eta oker haundiagoak izan zituen oraindik Osintxuko Artetxeren lantegiak. Berriemaladak zioenez, pare bat hilabete beharko zituen berriz martxan jarri ahal izateko. Izan zen anekdota bitxirik ere: Pedro Gorrotxategik lantegian zuen armairu errekan zehar 1.200 metro egin

ondoren bere etxeko atarian sartu zen, kasualitatez.

Baina egun hark berri tristerik ere sortu zuen. Altos Hornoseko eztrandak ez zuen hildakorik sortu baina handik kanpora izan zen hildako bat. Aurelio Gonzalez Sañudo, 10 urteko mutikoa lurrean zegoen argindarraren kable bat ikututa hil zen.

Estepan Plazaola

Argazkia: Maria Pilar Larraza

FERNANDEZ



**Oihal puskak
Oihalak**

San Antonio 3 Ibargarai 2
Tfnoa: 76 22 93 Tfnoa: 76 53 22

Mugica
Gozotegia

Artekale 3, Tfnoa 76 10 34



PortuGas

NATURGAS, S.A. enpresaren kolaboratzailea

Gas, berogailu eta
aklimatazio
lanetarako
proiektuak eta
instalazioak

ALEX GARDOKI

☎ 76 27 17

ETXEBIZITZA

Lokal bat alokairuan Iri-
zar 2an.
☎ 76 13 32 / 76 25 97.

Antzuolan pisua salgai,
Ibarra 3, 6.C.an.
☎ 76 62 49.

Bergaran herriaren erdi-
aldean ileapaindegia
alokatzen da. ☎ 76 16 17.

Taberna alokatuko nuke
☎ 76 53 73.

Pisua salgai Bidekuru-
tzetan. (5.000.000).
☎ 76 09 36.

Artekalen pisua salgai
☎ 76 55 63. Gauetz.

Garajea salgai Espalo-
ian. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alo-
kairuan. ☎ 76 03 31.

Pisu amueblatua aloka-
tzen da Bergara erdian.
☎ 12 12 71.

Espalolan garajea salgai
☎ 76 23 27.

Pisua salgai Martokuan:
bi gela, saloia, sukaldea,
bainua eta trasteroa.
☎ 762402 / 94-658 24 68.

Garajea salgai Santa
Marina inguruan.
☎ 76 32 70.

Antzuolan etxebizitza
salgai Ibarrodo 4an.
☎ 76 62 09.

Pisua hartuko nuke alo-
kairuan. ☎ 76 03 31.

SALDU-EROSI

Oinarrizko Dibujo Tekni-
koko klaseak hartuko ni-
tuzke. ☎ 76 31 55.

Urezko berogailuak eta
berogailu elektrikoak
salgai. ☎ 76 13 60.
(16.00etatik aurrera)

SUZUKI DR BIG motorra
salgai.
☎ 76 50 67. (Ander).

1.992-93 ikasturterako,
egunero Donostlara
joan-etorria egiteko, au-
tobusa bete nahi dugu.
Interesatuta bazaude
deitu 77 00 65era.

2. eskuko paseozko bi-
zikleta bat erosi nahi nu-
ke. ☎ 76 32 70. (Idoia).

3 atedun Opel Corsa
1.300 GTa salgai (SS-X).
☎ 76 05 92 (gauetz).

Esklitzeko bota italia-
rrak salgai (43a). Berriak,
oso merke!! ☎ 76 38 72.

Ingeles kurtso bat kase-
tetan erosiko nuke.
☎ 76 54 26.

XR 2 i kotxea salgai. 2
urte, berri-berria. 55.000
Km. SS-AG. ☎ 76 55 80.

Petrollozko estufa sal-
gai. ☎ 76 50 05.

Master System II-A sal-
gai. 6 joku eta mando bat.
Egoera onean. 25.000
pezeta. ☎ 79 06 61.

Kitarra akustikoa salgai
(15.000). ☎ 76 11 89.

OHOKo klase partikula-
rrak: ☎ 76 31 93.

Peugeot 205 XL bat
salgai. 6 urte SS-W.
☎ (945) 27 92 73 (arra-
tsaldez) / 76 05 23 (ga-
uez).

Mintendo berri-berri bat,
3 mando eta joku batekin,
salgai. ☎ 76 56 97.

LANA

Neska behar da etxeko
lanak egiteko. ☎ 76 31 58.

Neska Euskaldun batek
haurrak zaindu eta
etxeko lanak egingo li-
tuzke. ☎ 76 51 90 (gauetz).

Emakumezko batek hau-
rrak zaindu eta etxeko
lanak egingo lituzke.
☎ 76 36 06 (Marisol).

Mutil batek kalitatezko
ilustrazioak, erretratuak,
irudiak etab. marraztuko
lituzke ☎ 76 25 59.

Etxeko lanak egin eta
umeak zainduko lituzke
neska batek ☎ 76 06 98
(Amaia).

Neska batek etxeko la-
nak egin edota umeak
zainduko lituzke.
☎ 76 57 38.

Neska batek etxeko la-
nak egin eta umeak
zainduko lituzke.
☎ 76 45 53.

Hildakoak

Ignacio Egiluz Iriarte
urriak 18, 66 urte
Jose Casado Molina
urriak 20, 37 urte

Jaiotakoak

Unai Gisasola Alarcon, urriak 6
Julen Unzueta Odriozola, urriak 14
Aitzol Gandiaga Conget, urriak 15
Egoitz Retes Zabalo, urriak 15

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

GURIDI Aitzariak**Era guztietako
aitzariak**

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

JAKINA

BAINUAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK




ZERAMIKA ETA SANITATE GAIAK



SUKALDEKO ALTZARIGINTZA

San Lorenzo Poligono Industrialia, Amillaga 10, behea. Tfnoa: 76 03 30 • Faxa; 76 02 91. BERGARA

Levi'sek baimendutako denda



CRISTINA

Harruriaga z/g Tfnoa: 76 03 04 BERGARA

Cristinan era guztietako moda bakeroa!

Levi's • Caroché • Bonaventure